

Euskal kulturgintzaren transmisioa
III. modulua
2009-05-07

Euskal nortasuna:
kidetasuna eta kontsumoa


Euskal nortasunaren kokapena

1. Ingurune orokorra



ORAINGO EGOERA

2. Ingurune hurbila



ETORKIZUNA

3. Prospektibari



Euskal nortasuna = gizarte praktika

Gizartea **gertakariz** eta **diskurtsoz** osaturik dago.



Dimentsio biak elkarloturik doaz eta elkarren osagarri dira **gizarte praktikak** deitzen dena osatzeko.



Diskurtsoak dira gertakariei eranstean zaizkien esanahiak.



Ikerlan baten erreferentzia enpirikoa

EUSKAL NORTASUNA ETA KULTURA XXI. MENDEAREN HASIERAN

- Helburua: Euskal Herriko biztanleek euskal nortasunari eta kulturari buruz dituzten pertzepzio, iritzi eta jarrerak aztertzea: Lurraldea, nortasuna, hizkuntza, euskal kultura, kultura-praktikak eta elkarte-bizitza.
- Non: Euskal Herri osoa.
- Hainbat erakunde, enpresa eta aholkulariren elkarlana.
- Argitalpena euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez; liburua + CD-Roma.



INSTITUT CULTUREL BASQUE

- 3822 inkesta, 16 urtetik gorakoen artean.
- 22 eztabaida talde, 7 elkarrizketa eta 3 bizitza-historia.
- Interneteko edukien azterketa: Interneten “eusk” erroa (hainbat hizkuntzatan) darabilten iritzien bilketa.
- Landa lana 2004ko urritik 2005eko uztaileira.

Euskal nortasunaren dimentsio subjektiboak: lurraldeen arteko harremanak

Galderak:


- Posible ote da euskal nortasuna sendotu eta hedatzea bere lurraldetasunaz zein hedapen sinbolikoaz adostasunik ez badago?
- Posible ote ikuspuntu ezberdin horietatik abiatuta egitasmo komun bakarra izatea?

Euskal nortasunaren dimentsio objektiboak: lurraldeen arteko harremanak

Auzo lurraldeen artetik zeinekin duzu harreman gehien?					
	EAE		Nafarroa		Iparraldea
Nafarroarekin	36	EAErekin	54	Hegoaldearekin	33
Iparraldearekin	5	Iparraldearekin	4	Landekin	20
Kantabriarekin	15	Aragoiekin	14	Biarnorekin	14
Burgosekin	12	Errioxarekin	17	Gainerako Akitaniarekin	18
Errioxarekin	12	Ed/Ee	11	Ed/Ee	16
Ed/Ee	20				
% bertikalak	100	% bertikalak	100	% bertikalak	100

- EAEren eta Nafarroaren artean harreman handia eta hurbiltasun sentimendu orokorra daude.
- Iparraldea eta Hegoaldearen artean lotura ahulagoak eta asimetrikoagoak dira.


Euskal nortasunaren dimentsio objektiboak: Hizkuntza-gaitasuna (*)



(*) Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa 2006


Euskal nortasunaren dimentsio objektiboak: Azken hiru hilabeteotan zenbatetan joan zara...?

Praktika kulturaletan joera unibertsalak nagusitzen dira



- Zinemara
- Kontzertuetara
- Euskal dantzetara
- Antzerkira
- Dantza garaikide edo klasikora
- Museo edo erakusketara
- Monumentuak ikustera
- Bertso saioetara
- Pastoral edo maskaradetara
- Hitzaldietara


Euskal nortasunaren dimentsio subjektiboak: Zer da zuretzat euskal kultura?



Euskal nortasunaren dimentsio subjektiboak:

Seme-alabarik baldin baduzu, edo edukiko bazenitu, nahiko zenuke haiek euskaraz jakitea?

Hizkuntzaren berreskurapen ahalegina eta berreskuratzeko nahaia




Euskal nortasunaren dimentsio subjektiboak: baldintza garrantzitsuenak euskal herritar izateko

Zeintzuk dira bi baldintza garrantzitsuenak pertsona batek bere burua euskal herritartzat izateko?

	GUZTIRA	LURRALDEA		
		EAE	Nafarroa	Iparralde a
Euskal herritar izan nahi izatea	42	46	41	14
Euskal Herrian bizi eta lan egitea	41	46	31	24
Euskal Herrian sortua izatea	39	36	42	53
Euskaraz hitz egitea	17	16	10	40
Euskal Herriaren defendatzaile izatea	16	17	13	13
Arbaso euskaldunak	9	5	16	31
Abizen euskaldunak	4	3	7	6
Beste baldintza bat	5	5	7	6
Ed/Ee	4	4	8	3

Euskal nortasunaren dimentsio subjektiboak: baldintza garrantzitsuenak euskal herritar izateko



- Euskal herritar izan nahi izatea
- Euskal Herrian bizi eta lan egitea
- Euskal Herrian sortua izatea
- Euskaraz hitz egitea
- Euskal Herriaren defendatzaile izatea
- Arbaso euskaldunak
- Abizen euskaldunak
- Beste baldintza bat
- Ed/Ee


Euskal nortasunaren dimentsio subjektiboak: nortasun sentimendu nagusia (*)

Nortasun sentimendu nagusia (*)				
	GUZTIRA	LURRALDEA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea
Gehienbat euskal herritarra	44	57	10	17
Euskal herritarra eta espainiarra/frantsesa	23	29	0	24
Gehienbat espainiarra/frantsesa	12	9	5	53
Gehienbat nafarra	7	-	38	-
Nafarra eta espainiarra	4	-	19	-
Euskal herritarra eta nafarra	3	-	15	-
Beste	7	5	13	7
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100

(*) Erantzun aukerak ez dira berberak izan lurralde guztietan.

Euskal nortasunaren dimentsio subjektiboak: Euskaltasuna versus Erdaltasuna eta Nortasunen Tinkotasun Maila

HERRITARREN KATEGORIZAZIOA NORTASUN KOLEKTIBOEN IKUSKERAREN ARABERA



Euskal nortasunaren dimentsio objektiboak

Bilakaera historikoa



Euskal nortasunaren dimentsio subjektiboak

Euskal nortasunaren dimentsio subjektiboa

Bilakaera historikoa

Esentzialismo edo primordialismoa

Konstruktibismoa

- Jatortasuna /
- Tradizionalismoa edo kontserbadorismoa
- Jarrera pasiboa: jaso

- Nahi izatea
- Erabakitzeko ahalmena
- Dinamikoa, eraldatzailea
- Jarrera proaktiboa: eragin
- Aldaketa = aukera berria

Patua:
Asimilazio kulturala

Abertzaletasuna:
Gure izaerari eutsiko diogu

Indibidualismoa:
Nahi dudana izango naiz

Euskal nortasunaren bidegurutzea

Euskal nortasunaren dimentsio objektiboa

Euskal nortasunaren dimentsio subjektiboa

Bilakaera historikoa

~~Patua:
Asimilazio kulturala~~

Abertzaletasuna:
Gure izaerari eutsiko diogu

Indibidualismoa:
Nahi dudana izango naiz

?

?

**AZKEN BURUAN:
Euskal gizartea eta
kulturgintza bidegurutzean**

Euskal Herriko ibilbide kultural eta identitarioa lideratu

**Iraganari baino ez
so eginez**

Aniztasuna onartuz

**Jatorriko euskal
sustrai petoko eredu
hertsuari eutsiz?
*“hainbat hiritar
horretatik at geldituz”***

**Globalizazioaren eta
estatuen eraginaren
menpe geldituz
guztiz asimilatuak
izan arte?
*“berariazko euskal
izaeraren amaiera”***

**Euskal jatorrikoa eta
kanpoko bat eginez,
nolabaiteko
mestizajea edo fusioa
onartuz?
*“euskaltasunaren
eredu berriak sortuz”***

Ikerlanetik eratorritako hainbat ondorio: Egungo eta geroko izaera

- Euskal Herriko gizartean kultura eta nortasun adiera oso ezberdinak.
- Euskal kultura eta nortasunaren adierak ere oso ikuspuntu kontzeptual ezberdinetan oinarrituak: primordialista edo esentzialista, instrumentalista, konstruktibista.
- Erdaltasunaren hainbat elementu kultural eta identitario Euskal Herriko kultura eta nortasunean zeharo erroturik.
- Euskaltasunaren esparrutzat denek jotzen dituzten hainbat osagai, neurri ezberdinetan, Euskal Herriko lurralde guztietan.
- Euskal jatorrikoa eta kanpokoa bat egiteko beharra, nolabaiteko mestizajea edo fusioa bultzatuz: *“euskaltasunaren eredu berriak sortuz”*.

Ikerlanetik eratorritako hainbat ondorio: Egungo eta geroko izaera

- Euskal Herriko lurraldeen arteko eguneroko harreman-jarioa eta hurbiltasun sinbolikoa beste lurraldeekikoa baino handiagoa herritarren gehiengoarengan; lotura ahulak eta hauskorrak, baina errealak.
- Euskaltasunaren elementuen artetik euskara da ezinbesteko osagai edo erreferentea.
 - Paradoxa: Euskara euskal nortasunaren eta kulturaren oinarrian jartzen da, baina euskaraz ez dakitenak eta beste hizkuntza batzuetan egindakoak ere ez dira euskal kulturatik kanpo utzi nahi. Euskararen inguruko hausnarketa bultzatzea eta adostasuna bilatzea ezinbestekoa elkarbizitza ahalbidetzeko.

Ikerlanetik eratorritako hainbat ondorio: Egungo eta geroko izaera

- Euskal kultura eta nortasuna krisialdi, trantsizio eta, etorkizunari begira, bidegurutze batean.
- Euskal kultura eta nortasunak aurrera egingo badu malgutasunez jokatu beharra EH barruko izaera eta ulerkera ezberdinekin; euskal kultura eta nortasunaren ideia malgutu eta bere mugak zabaldu, lekuan lekuko berezitasunak ere beregana ditzan.

Ikerlanetik eratorritako hainbat ondorio: Egungo eta geroko izaera

- Nahasketa kulturala eta bitariko (edo askotariko) nortasunak gero eta zabalduagoak egongo dira. Horregatik:
 - euskaltasunaren azpi-kulturan honezkero agertzen den jarrera malgua, esku luzatuaren jarrera, sendotu eta zabaldu behar da;
 - halaber, ohiko nortasun sendoekin batera sortzen ari diren nortasun malguak eta eguneroko erreferente kulturalak euskal kulturara eta nortasunera bildu beharra dago.
- Globalizazioaren garaian nazioarteko eraginak halabeharrezkoak dira.
 - Gakoa: horiek gure egiteko modu propioa garatzea.

Ikerlanetik eratorritako hainbat ondorio: Egungo eta geroko izaera

- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berriek euskal kultura eta nortasunaren eremuan eskura jarri dituzten aukera eta erronka berriak baliatu euskal eremu kultural eta identitarioa garatzeko eta eguneratzeko.
- Euskal gizarteak berezkoa duena galdu gabe irekitzeko prozesua batez ere euskaltasunetik gidatu behar da, nahiz eta bestelako adierazpen kultural eta identitarioek ere euren lekua izan behar duten. Tradizioaren zimenduetatik eraiki geroa, ez soilik kanpoko ezaugarrietatik edo zerotik hasita.
- Kultura pizgarri edo akuilu izan daiteke euskal nortasunarentzat eta gizartearentzat.

Ikerlanetik eratorritako hainbat ondorio:

Laburbilduz

Baldintzak Objektiboak:

- Aniztasun kulturala eta identitarioa ohikoa da egungo gizarteetan; ez gara salbuespena.
- Kultura eta nortasun kolektiboaren ikuspuntutik Euskal Herria bereizten duena eraketa juridiko, administratibo edo politiko komunik eta berariazkorik ez izatea da.

Baldintzak Subjektiboak:

- Diskurtso konstruktibistaren parte batek “*euskaltasunaren eredu berriak*” sortzearen alde dago, betiere euskaltasuna ardatz hartuta: **kidetasunaren** diskurtsoa.
- Diskurtso indibidualistak merkatuaren legeari jarraituko dio, “*aukerarik hoberena*” beti bilatuz: **kontsumoaren** diskurtsoa.

Ikerlanetik haragoko galderak: Aurrera egiteko aukerarik ote?

- **Galdera:** Baldintzak Objektibo eta subjektiboak kontuan hartuta, euskal nortasunak ba ote du aurrera egiteko aukerarik?

Erantzuna:

- Bai, baldin eta **baldintza subjektiboak egokiak** badira:
 - Kidetasunean sustraitutako diskurtso konstruktibistari eusten badiogu: *“gure izaerari eutsiko diogu”*.
 - Izaera berria eraikitzen asmatzen badugu, kulturen eta nortasunen merkatuan lehiakorra *“aukerarik onenetako bat euskaltasunarena”*.
- Horrela baino ez da posible izango bizirauteko beharrezkoa den ezinbesteko *“masa kritikoa”* euskal nortasunera biltzea.

Ikerlanetik haragoko galderak: Aurrera egiteko aukerarik ote?

2. Galdera: Uste hori **boluntarismo hutsean eraikita ez ote?**
Benetan uste dugu aukerarik dagoela?

Erantzuna: Hainbat adibide historikok argi erakusten dute ***gizarte praktiken*** alde subjektiboaren eraginkortasuna, baldintza objektiboak hoberenak izatetik lekutan egonda ere:

- Adibide bat:
 - Eusko Ikaskuntza 1919an jarduera egitasmo zehatzak diseinatzeko hasi zen: *...hiriburuetan euskara ikastaroak antolatzeko premiaz eztabaidatu zuen. (..) euskara ikasketa planetan sartzea dela-eta, Gobernuari eskaria egiteko erabakia gogoan harturik, Ramon Menendez Pidalekin harremanetan jartzea erabaki zuen hark ekimen hau gidatu, lagundu eta sostenga zezan.* (Atejoka008, 2009ko apirila).

Igaro den mendeko baldintza objektiboak hoberenak izan gabe ere, aurrerapauso handiak eman dira.

Ikerlanetik haragoko galderak: Aurrera egiteko aukerarik ote?

- Beste adibide historiko bat, Arantzazuko Santutegiarena (I):
 - *...el 26 de diciembre de 1553, un violento incendio redujo a pavesas todo el convento. (..) La primera (carta) es del Ayuntamiento de Oñate. En ella se pondera el «daño excesivo y grande» que esta quema significa «para todo el bascuence, que allí acudía con mucha devoción». Dada la aspereza del lugar –dice- hay gran necesidad de ayuda para que se pueda reedificar. (...) pide a S. Ignacio interceda cerca del Papa «para que este santo jubileo que se pretende se conceda a esta casa tan devota» (...)*
 - **No parece que se lograra el ansiado jubileo; pero aun sin él fue tal la generosidad y entusiasmo despertado, tan abundantes y copiosas las limosnas, que muy en breve se fabricó un edificio mejor y mayor que el anterior. (...) hacia 1600 se emprendió la construcción de una capilla mayor. En 1621 se celebró solemnemente la traslación de la imagen a esta nueva capilla.**

Ikerlanetik haragoko galderak: Aurrera egiteko aukerarik ote?

- Beste adibide historiko bat, Arantzazuko Santutegiarena (II):
 - *Pero al año siguiente, el 14 de julio de 1622, se declaraba un nuevo incendio, tan devastador, que lo arrasó todo en pocas horas. (...) Pero las desgracias de Arantzazu parece que no servían sino para **acicate de la fe y generosidad del pueblo fiel**. Aun no habían pasado ocho días de la quema, cuando los superiores se resolvieron a edificar la obra. Al cabo se llegó a reconstruirla con más perfección que antes. (...)*
 - *Conviene recordar que en el s. XVII **los labortanos venían en peregrinación a Arantzazu**; y, al no poder venir acá, por las guerras existentes entre España y Francia, erigieron en Ainhoa una capilla a nuestra Virgen, titulada Arantzeko Ama Birjina, Ntra. Sra. del Espino.*

Ikerlanetik haragoko galderak: Aurrera egiteko aukerarik ote?

- Beste adibide historiko bat, Arantzazuko Santutegiarena (III):
 - *A doscientos y pico años del segundo incendio tuvo lugar el tercero, el de más terribles consecuencias. Fue el 18 de agosto de 1834, en plena guerra civil. (...) El incendio fue total. Solamente la torre quedó enhiesta sobre las ruinas calcinadas. La imagen de la Virgen fue bajada a Oñate y los religiosos dispersados. El gobierno de Mendizábal dispone la desamortización y exclaustación general de los religiosos. Con esto Arantzazu conoció un largo paréntesis de abandono, soledad y ruinas. En realidad, (...) Arantzazu no estuvo nunca enteramente abandonado de sus **custodios seculares**. A título de capellanes del Santuario, y en hábitos de curas, sin formar Comunidad, vivían aquí **varios religiosos exclaustados**. En 1845 comenzó la reconstrucción del templo, pobre y humilde, pues las **circunstancias no permitían otra cosa**, pero para el año siguiente estaba terminado, gracias a las limosnas de los devotos.*

Ikerlanetik haragoko galderak: Aurrera egiteko aukerarik ote?

- Beste adibide historiko bat, Arantzazuko Santutegiarena (IV):
 - ***La nueva basílica.** D. Pablo de Lete, provincial de los franciscanos, ante la insuficiencia de la iglesia construida después del incendio de 1834, decide la construcción de **una basílica nueva.** La primera piedra del nuevo edificio se coloca el 9 de septiembre de 1950,...*
 - *Desde 1950 Arantzazu conoció como **un vértigo de obras que se sucedían unas tras otras sin interrupción.** Después de la basílica -incompleta aún en algunos detalles de decoración- se construyó el edificio destinado a frontón, salón de actos y salones de juegos para los estudiantes: este edificio se hacía necesario porque el antiguo frontón tuvo que ser derribado por exigencias de ensanche de carretera. Siguióse el ensanche y mejoramiento de la carretera,...*

Ikerlanetik haragoko galderak: Aurrera egiteko aukerarik ote?

- Beste adibide historiko bat, Arantzazuko Santutegiarena (V):
 - **Remodelación de los espacios y volúmenes en el siglo XXI.** A partir del año 2002 se llevó a cabo un novedoso proyecto revitalizador del complejo Arantzazu; se rehabilitó el antiguo seminario y se restauró totalmente el santuario, todo ello con una inversión cercana a los 190 millones de euros. (...) El complejo alberga una oficina de turismo, los servicios públicos y (...) el centro cultural.
 - El Centro Cultural Bittoriano Gandiaga Topagunea fue inaugurado en junio de 2005,... En su interior, se albergan **locales con diferentes funciones: pequeños frontones, una zona de cobijo para días lluviosos, un albergue para jóvenes, un salón de congresos, pequeñas salas de reunión, y diversos espacios para exposiciones fijas y móviles.**

(<http://www.euskomedia.org/aunamendi/12239>)

Adibideetatik atera beharreko azken ondorioak

Euskal nortasunak eta kulturak bizirauteko lau baldintza:

2. Baldintza objektiboen neurria hartu eta horietara egokitu:

- Irekitasunez jokatu: globalizazioa, aniztasuna...

“eremu itxia eta zurruna da euskal kulturarena, asuntu konplexua da hori, baina baita konplexuei dagokiona ere” (Maialen Lujanbio, BERRIA, 2009-01-16)

“El estado natural de la especie humana siempre ha sido multicultural” (Juan Uriagereka. Atejoka007, 2009ko martxoa)

3. Garaian gariko aukerak baliatu:

- Informazio eta Komunikazioaren Teknologia berriak.
- Kidetasuna gehi kontsumoa, biak ala biak uztartu...
- Abagune-aukeraren zain egon gabe, baizik eta horretarako prestatu.

Adibideetatik atera beharreko azken ondorioak

Euskal nortasunak eta kulturak bizirauteko lau baldintza:

3. Aitzindaritza gaituaren premia.
 - *Euskalgintzaren prestakuntza eta antolaketa eraginkorra.*

5. Komunitate baten berotasuna eta laguntza:
 - *...zer da euskaldunen komunitatea? (...) Oso komunitate <bizia> eta <ekologikoa>, egungo gizarte indibidualista eta neoliberalaren kontrakoa erabat (Martinez de la Pera, BERRIA, 2009-04-30)*

Eskerrik asko zuen arretagatik !